

**BI LIBURU HANDI ETA GARRANTZITSU:  
(«XX.MEND.EUSKAL LIBURUEN KATALOGOA»  
ETA «HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA»)**

**1. Joan Mari TORREALDAI NABEA, XX. Mendeko Euskal Liburuena Katalogoa (1900-1992). Donostia, 1992, XXIII - 1187 orr. 24 x 17 zm.). (Koldo Mitxelena Kulturunea).**

Liburu handi eta ederra daukagu eskuetan. Euskara eta euskal literatura aztertzeke oinarrizko lan bat dugu. «Oinarrizkoa» diot, literatura arloan eta hainbat arlo desberdinetan euskaraz egin dena ikertu nahian ari direnentzat, lagungarri gerta daitekeelako. Oinarrizkoa, euskarazko liburugintzaren bilaketan ari direnei lana arintzeke, honelako liburuak aspaldi eginak izan behar luketelako.

· Horrexegatik zorionak bihotzez egileari!

Ikus ditzagun lan bibliografiko honen edukia eta egitura: 13.311 fitxa bibliografiko dituen material hau hiru atal handitan berezida da, edo hobeki esan, darabilen metodoaren arabera, hiru aldiz errepikatzen da.

a. «Euskal liburuak 1900-1992» (1-237 orr.).

Kapitulu hau gaika sailkaturik dago Unescoren gai-taula jarraituz. Gai orokorrak (orotarik) alde batera uzten baditugu, lau gai dira gehien erabiliak:

- a. Literatura (2.544).
- b. Irakaskuntza.Hezkuntza (2.488).
- c. Erljioa.Teologia (1.228).
- d. Hizkuntzalaritza.Filologia (1.146). Maila apalagoan beste gai batzuk datoz: Historia/Biografia, Arte ederrak, Soziologia/Estatistika, Natur zientziak, Zientzia politikoak, Geografia/Bidaia, Etnologia, etab. Baina gai bakoitzaren barruan autoreak alfabetoaren arabera sailkaturik datoz.

*b. «Idazlez idazle» (631-885 orr.).*

Kapitulu honek eta ondorengoak bigarren atala edo Aurkibi-deak deritzona osatzen dute. Gaika dagoen lehenengo zatiak behar-beharrezko zuen alfabetozko egileen zerrenda hau, nahi den egilea erraz aurkitu ahal izateko.

*c. «Tituluz titulu» (887-1187 orr.).*

Egia esan, 300 orrialdetako kapitulu hau ez dut hain beharrezkotzat jotzen; agian ongi etorriko zaie liburu-saltzaileei...



- Hain erabilgarria den liburu honetan, oso zabala izanik, erraz antzeman daitezke hutsak; gainbegiratu bat eman diot autore batzuk ikusiz, bereziki Karmel-Sortan argitaratutakoak eta lagunen batzuek argitaratutakoak, eta hutsune batzuk aurkitu ditut... behar bada barkagarri zaio, geure errua izan delako, baina ez guztiz barkagarri. Gogoratzen naiz Torrealdaik, beste batzuei bezala uste dut, Karmel-Sortan argitaratutako liburuen berri eskatuz paper bat bidali zidala betetzeko, eta, askotan gertatzen denez, ahaztu egin zitzaidan..., oraindik hemen dut papera... laguntza hau eman beharko nion, bereziki honelako lan zabaletan...

Kasu zehatz banaka batzuk aipatuko ditut:

– Lino Akesoloren «Idazlan guztiak» obrari dagokionez, lehen bi liburukiak 1989an agertu ziren, eta hirugarrena 1992an, baina Torrealdaik ez du esaten hirugarren liburukia denik, ezta Julen Urkizak argitaratua denik ere lehen bi liburukien kasuan esaten duenez.

– Julen Urkizak argitaratutako lanei dagokienez: lehenengo eta bat Urkizu (564, 565) idaztearen akats txikia egin du. 868. orrialdean S.Muniategiren «Olerki guztiak» obraren aipamena agertzen da, baina ez da agertzen S.Onaindiaren (565) «Olerki guztien bilduma» izenekoaren aipamenik.

– J.Urkizak eta L.Baraiazarrak (627, 868) argitaratutako liburua, liburu bera bi aldiz agertzen dela esan behar, bi liburu desberdin bailiran (izenburu desberdin eta guzti). Egia esan, baliteke liburuak berak nahasbidea ematea, azaleko izenburua eta barrukoa, hots, lehenengo orrialdekoa ez baitatoz bat. Hala ere harrizkoa da huts hau egin izana, aipatutako liburua, uste dudanez, eskuartean izanda. Ongi jakin behar du, horrelako gauzetarako, balio duen titulua barrukoa dela eta ez azalekoa.

– «Bostak bat» lantaldeak argitaratutako liburuei dagokienez: «Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna» liburuaren egileen artean (405. orr.) Luis Baraiazarra falta da, hain zuzen ere dedikazio osoz liburu horretan aritutako bakarra bera izanik. Beste aldetik liburuak ez ditu 480 orrialde, fitxa bibliografikoan datorrenez, 292 (edo 295) baizik.

- Hautatutako metodoari dagokionez, ohar bat edo bi egin daitezke.

– Batzuetan ez nuke zuzentzat joko idazlez idazle edo alfabetoaren arabera erabili izan den aipatzeko era; ez deritzot ongi Aita Emiliano [Barandiaran], «Aita Emiliano-ren lekuan ezartzeari; «B»arandiaran-en ezartzea litzateke zuzena, edo eta bestela «E»miliano (aita) izenean, nahiago bada. Beste horrenbeste esango nuke Santa Teresa de Jesús-en kasuan

ere. Autore hau «Santa Teresa de Jesús-en dator; egokiago litzateke «Teresa de Jesús (Santa) izenean ezartzea, etab.

– Bigarren atalean, hau da, «idazlez idazle» deritzon, pixka bat harritu egin naiz idazle bakoitzaren lanak idazle horren izenez ez aurkitzean; adibidez, Urkiza, Akesolo, Goiria, S.Onaindia eta abarren lan guztiak ez dira idazle horietako bakoitzaren izenaren lekuan agertzen; beste izen edo tokietara jo beharra dago haien lanetariko batzuk aurkitzeko, liburuaren erabilera zailago bihurtuz... Liburuaren beste izen batez argitaratua izan arren, aipamena edo erreferentzia, idazle haren izenari dagozkion lanen zerrendan jarri behar ko litzateke...

- Lan bibliografiko handi honetan falta diren liburu batzuk:

– Domingo FERNANDEZ MENDIOLA, *Aita Aureliano Karmeldarra (1887-1963) Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaile*. Gasteiz, 1983, 59 orr.(Euskeratzaile: Lino Akesolo).

– J.A.GOIRIA, *Gernika-ko Arbola*. Bilbao, [1983], 36 orr. (Behar bada aipatu gabe utziko zuen liburu-liburu ez delako, liburuska baizik).

– Johann W.GOETHE, *Faust (Der Faust)*. Bilbao, 1986, 305 orr. (Euskeratzaile: Aita Onaindia).

– Pio BAROJA, *Ipuiñak*. Bilbao, 1987, 199 orr. (Euskeratzaile: Aita Onaindia).

– LISIEUX-KO TERESE, *Arima baten istoria*. Larrea, 1991, 318 orr. (Euskeratzaile: Aita Onaindia).

– ORATI, *Odak eta epodoak*. Bilbao, 1992, 315 orr. (Euskeratzaile: Aita Onaindia).

- Ohar hauek karmeldar idazle euskaldunen lanei dagozkienak dira soilik...

Beste aldetik, ohar hauek idazteko eta, beraz, Torrealdairen liburuaren erabiltzeko, maiz jo behar izan dut hirugarren atalera

(«Tituluz titulu»), hain zuzen ere bigarren atala («idazlez idazle») ez dagoelako guztiz osatua. Hala ere ni lehengoan nago, hau da, bigarren atala ongi eginez gero, hirugarrena («Tituluz titulu») alferrikoa litzatekeela.

- Ohar hauek gorabehera, Joan Mari Torrealdaik burutu duen lan bibliografikoa bikaina da eta nire zorionak berari... Lan bibliografikoak erabili behar izaten ditugunok badakigu honelako ahaleginak eskertzen. Eskerrik asko!

**2. *Hiztegi Entziklopedikoa*. Usurbil, 1993, XXXI - 1790 orr. (24,3 x 17,3 cm.). (Elkarlanean. Koordinatzailea: Inaki Irazabalbeitia).**

**1. Obra baliotsu bat**

Gizon eta emakume talde batek burututako lan eskergaitza da.

Honelako lan handiek, lehenengoa izatean batez ere, garrantzi eta meritua handia izan ohi dute, zailtasunak handiak eta ugari izaten baitira... Dena dela, sarreraren hasieran esaten denez, lagungarri izan daitezkeen entziklopedia ugari da beste hizkuntzetan. Horrez gainera, orain dela bi urte hasita, beste lan handi bat, «Lur Hiztegi Entziklopedikoa», argitaratuz doaz euskaraz...

1821 orrialdetako liburu hau erabilgarria eta atsegina da. Orduak eta orduak igaro daitezke ikusmiratzen, irakurtzen, irudi eta argazkiak ikusten... Egin duten ahaleginak, eta areago euskaraz, aitortpena eta eskerrona merezi ditu. Euskal kulturaren eraikuntzan oinarritzko harria jarri dute euskaldunaren zerbitzurako. Honezker, gerora egin daitezkeen honen antzeko lanak errazago izango dira, edo eta, behintzat, ez hain zailak lan honi esker. Beraz, euskaldun guztion goraipamena zor zaie egileei.

**2. Nota kritikoak**

Egingo ditudan ohar edo kritikei dagokienez, oso kontutan izan dut liburuaren egileek izan duten irizpidea: Entziklope-

diak giza jakintza osoaren eta jakintza unibertsalaren berri labur-labur ematen duten liburuak dira; baina euskal entziklopedia honetan, hala ere, Euskal Herriari dagokiona bereziki sartu da... Entziklopedia normal batean ez litzateke horrela egingo... Baina irizpide horri onargarri deritzot eta oraingo euskal kulturaren egoeran oso baliagarri. Neure gogoetetan kontutan izango dut egileen irizpide hori.

Honelako entziklopedia batean, eta areago «lehenengoa» izanik, akatsak eta hutsuneak izatea logikoa eta berezkoa da..., hiztegi entziklopedikoak argitarapen berriak egin ahala, urteetan zehar osatuz edo hobetuz joaten baitira... Horregatik ez da nire asmoa akats eta hutsuneen bila aritzea... Esaterako, galde genezake Euskal Herriaren izen, ikurrin eta armariaren azpian zergatik ez duten jarri, beste nazio guztietakoan jarri dutenez, taula estatistikoa... etab.

Akats eta hutsune zehatzak aipatu arren, ez da nire asmoa horien bila aritzea, mamiz eta azalez akats larritzat dudana adieraztea eta metodologi alderdia aztertzea baizik, honetan norabide edo joera nahiko finkoa nabari baita, erlijio-arloari dagokionean eta, bereziki, mendeetan zehar euskal bizitza orokorrean hain funtsezkoa izan den erlijio kristau eta katolikoari dagokionean. Akats oso larritzat dut, obra hau ilundu eta beronen balioa, neurri batean, murrizten duena.

#### *a. Kristautasuna orokorrean.*

Esan berri dudanez, benetan ezatsegina eta onartezina izatea ez datza akatsetan hauek normaltzat har baitaitezke, erlijio kristau katolikoari dagokionean nabari den estiloan, joeran eta metodoan baizik.

Hiztegi entziklopediko batean, gai bakoitzari buruzko informazio betea ez aurkitzea berezkoa da, laburtu beharra ezinbestekoa baita. Hala ere, bere laburrean, pertsonaiek eta gaiek, neurri batean behintzat, ematen zaien zabalaren arabera garrantzi handiagoa edo txikiagoa izan ohi dute. Hau da,

bidezko denez, garrantzi handiko gai eta pertsonaiei bigarren mailakoei baino lerro batzuk gehiago eskaintzen zaizkie.

Beraz, hau kontutan izanik (eta Euskal Herriko inguruneari ematen zaion lehentasuna kontutan izanik), harrigarri gertatzen da berez eta Euskal Herriari begira hain garrantzitsuak ez diren gaiak zabaleran leku handiagoa ematea... Honetaz ehundaka kasu aipa genitzake... Ez ahaztu erlijio kristau katolikoa-ren gaiari nagokiola.

Bere laburrean ere, idazlanetan, kalitate hobea agertu behar-ko lukeela uste dut, hartzen diren irizpideei hobeki erantzuten dien metodoa. Jesukristori, adibidez, 21 lerro ematen dizkiote; Mahomet-i 27; Marx-i 27; Stalin-i 33, etab... Ezin dut buruan sartu, ez mundu osoaren maila eta gutxiago oraindik Euskal Herri mailan, nola ematen zaion Mohamet-i Jesusi baino garrantzi handiagoa... Beste gauza bat: lerro urri horietan, oso labur bada ere, Mahomet-en, Marx-en eta abarren mezua zertxobait jarri dute, baina Jesusen mezu edo doktrinarik ez... Eta idazteko era edo estiloa: usain txarra hartzeko moduko gehigarritxo bat jartzen dute askotan, adibidez: Jesus «kristautuentzat» Mesias da. Hori zuzena da, baina zergatik ez dute jartzen gehigarritxo bera Mahomet-en kasuan «mahomatarrentzat» edo «musulmanentzat» jarritz? Gauza hutsa, txikikeria dela dirudi, baina entziklopedia osoan zehar sentipen eskasa uzten du. Kontutan hartzekoa da 21 lerrotako idazlan horretan «kristautuentzat» delako gehigarritxo hori bi aldiz datorrela, eta era berdinean erabil zezaketen beste gai edo pertsonaiekin ez dute erabiltzen...

Gai historikoetan, aukera duten guztian, jakineko klitxe ez-korrak errepikatzen dituzte Elizari buruz, gainera behar ez dela eta laburtasunaren kaltetan...

#### *b. Historiako idazlanak.*

Euskal herrialdeei edo eta Euskal Herri osoari buruzko idazlanak gainerakoak baino luzetxoagoak dira. Azpimarratzekoa

eta harrigarria da kristau-erlijioaz, sekula izan ez balitz bezala, ez dela txintik ere esaten. Mendeetan zehar izan duen eragin eta garrantzi sozial, kultural, ekonomiko, zientifikoa... ez da ezertarako kontutan hartzen, ez eta lerrotxo bat eskaintzeko ere... Hau itzela da! Mundu mailako hondamen atomiko bat gertatu, eta idazlan hauek soilik geldituko balira..., inork ez luke jakingo Euskal Herrian kristau-erlijiorik izan denik ere. Badakit idazlan labur horietan gure iragan historiko politikoa azpimarratu nahi izan dutela... Baina, hala ere, hori guztia ahaztea onartezina da... Areago oraindik, idazlanaren azpitu-tuluan «Historia» jartzen bada... Horretarako egokiago zitekeen «Historia politikoa» jartzea, bestela errealtatea faltsutu besterik ez baita egiten... «Euskal Herria» idazlanean ETA-ren ekintzari hainbat lerro eskaintzen zaizkio beste gai batzuekin gonbaratuz, eta gainera beste idazlan nahiko luze bat ere eskaintzen zaio aparte erakunde horri. «Kristautasun» izeneko 25 lerrotako idazlanean, ordea, kristautasunaz orokorki hitz egiten da, kristautasunaren presentzia Euskal Herrian aipatu ere egin gabe... Hau harritzekoa eta nabarmena da, lehen aipatutako irizpideak kontutan izanez gero.

«Zuberoa» izeneko idazlanean kristautasuna aipatu bai egiten da, baina «erlijio-gerrak» delakoarekin erlazonaturik...

*c. Euskaldunak ez diren pertsonaia erlijioso batzuk*

Orain gauza zehatzagoak eta zertzelada txikiak aipatuko ditut, baina esaten ari naizena frogatzen dutenak.

– «Jose,San»: 4 lerro eskaintzen dizkiote; eta okerbidera daraman esaldi bat, hain da argia, izan ere!: «Jesusen aita». Besterik gabe horrela esateak errakuntza larria dakar. Hiztegi Entziklopedikoaren sarreran aipatzen den «El pequeño Espasa»k argiago eta zuzenkiago dakar «padre putativo de Jesucristo». Egokiago izango zen Espasa-k bezala jartzea.

– «Maria» (Andre Mari); 12 lerro eskaintzen dizkiote. 12 lerrotan, Eskritura santuaren, tradizioaren eta historiaren ara-



bera, esan daiteke gehiago eta hobeki. Hain lerro gutxitan elizen artean, Ama Birjinari buruz, «eztabaida garratzak» direla esatea lekuz kanpo dago guztiz... Mariari buruzko liburu batean bai izango luke horrek bere lekua. Beste pentsamentu bat adierazteko erari ere desegokia deritzot.

– «Joan Bataiatzaile»; 8 lerro eskaintzen dizkiote. Itzela da ez dakiguna hain argi esatea, eta dakiguna behar bezala ez idaztea! Lehenengo eta bat «Sekta judu bateko burua» dela diote. Itxurabea, absurdua da gai bakoitzaren ezagutza nagusi eta funtsezkoenak agertu behar dituen hiztegi batean honelakoak jartzea. Egia da gaur Biblia gaietan adituak direnen artean talderen batekoa izan daitekeelako ustea dabilela, agian, Esenioen edo Qumram-go taldeen antzekoren batekoa; baina Hiztegi Entziklopedikoak bezala kontzeptu funtsezkoak soilik darabiltzan hiztegi batean horretan sartzea lekuz kanpo dago... Eta desegokiago da oraindik «Sekta judu bateko buru» dela esatea; sekta batekoa izenik ere ziur ez badakigu, gutxiago oraindik «buru» zela.

– «Paulo, San»; 24 lerro eskaintzen dizkiote. Hemen ere esaera desegokiak edo honelako entziklopedia batean ongi ez datozenak aurkitu ditugu. Adierazgarria da idazteko era, idea edo joera finkoa erakusten duena: «Historialari batzuen arabera» Paulo Erroman hil zen 64ean, beste batzuk «antzinako tradizio batean» oinarrizten dira...67ean hil zela esateko... eta azken esaldia, honelako entziklopedia batean lekuz kanpo dagoena: «Kristautasunaren bigarren sortzailatzat hartu izan da»... Bibliaren iruzkinetan honelako zerbait esan arren, eta bereziki protestanteak dira uste horretakoak, tamainu honetako entziklopedia batean ez dator harira esaldi hori, batez ere esan zitezkeen eta esan beharrekoak ziren beste gauza batzuk sartu ez direnean...

– «Joan Gurutzekoa, San»; 7 lerro eskaintzen dizkiote. Azken hamarkadetako kritika literarioa kontutan izanik, idazteko moduak zaharkitua dirudi. «Bere poemak eta tratatuak

mistika espainolean oso garrantzitsuak izan ziren» dio. Ez hori bakarrik, Espainiako eta munduko poesia lirikoaren gailurra da; hau da, ez da mistika kontua soilik, literatura kontua ere bai baizik. Eta adierazgarria da haren obra poetikoan garrantzitsuena den «Cántico espiritual» ez aipatzea.

– Teresa Avilakoa edo Jesusena, Santa»; 13 lerro eskaintzen dizkiote. Haren jaioterrizat, gauzarik normalena bailitzan, «Gotarrendura» jartzen du. Benetan itxuragabekoa da entziklopedia batentzat gauzarik iskanbilatsuen, eztabaidatuena dena normaltzat jotzea; mundu guztiak onartzen duena, ordea, aipatu ere ez du egiten. Adierazgarria! Ehundaka urtetan zehar eta milaka liburu eta idazlanetan, dokumentuen argitan, Santa Teresa Avilako hirian jaio zela aitortu izan dute beti... Historilari batek, Efrén de la Madre de Dios izenekoak, Goterrendura-n (Avilatik kilometro gutxitara dagoen auzunean) jaio zitekeelako bere hipotesia zabaldu zuen, oso kritikatu izan zen baieztapena... Eta orain entziklopedia honek normaltzat jotzen du hori... Absurdua da hori tamainu honetako entziklopedia batean... Eta ez diot garrantzirik ematen data bat oker jartzeari, inprimategiko hutsa izan baitaiteke; 1954 jartzen du, 1562 edo 1568 jarri beharrean. Adierazgarria da jenero autobigrafikoan giza historia osoko obrarik garrantzitsuenetakoa ez aipatzea...

Honela idazlan ugari azter genezake... baina ez dago zertan jarraiturik... Esaterako, hutsuneen artean, Edith Stein alemaniar judua aipa genezake, fenomenologiaren sortzaile zen Edmund Husserl-en ikasle kuttunena, XX. mendeko emakumerik handienetakoa...; judu fedegabea, filosofoa, erlijio katolikora bihurtua, II. Mundu-Gerra aurrean emakumearen eskubideen alde aitzindarietarikoa bat izana, karmeldarra, nazien kontzentrazio-esparru bateko gas-ganbaran hila etab...

#### *d. Pertsonaia euskaldunak.*

Hemen nabari diren hutsuneak nahiko larriak dira. Entziklopedia honetan iraganeko eta batez ere oraingo pertsonaia asko eta

asko datozela ohartu naiz, hain garrantzitsuak ez direnak batzuk, baita erlijioso eta apaizen artean ere, hala ere egileen irizpidea kontutan izanik, ongi deritzot entziklopedian leku emateari... Tamalgarria dena zera da: entziklopedian sartu diren asko eta asko baino garrantzitsuagoak diren iraganeko pertsonaiak hortik kanpo gelditu izana... Era askotako pertsonaiak aipa nitzake, baina une honetan, aurreko oharretan egin dudanez, pertsonaia erlijiosoei lotuko natzaie soilik... Gure herriko santuak edo behintzat Euskal Herriarekin lotura izan dutenak falta dira...

Entziklopedian agertzen ez diren pertsona aipagarrien artean, Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik at beren lana egin izan duten Elizako pertsonetatik, lehen pasadan, 40tik gora kontatu ditut, eta iraganeko idazleei begira jarriz gero ere, hainbat dira.

Adibide gisa Iparraldeko pertsona aipagarri batzuen izenak jarriko ditut, bereziki joan den mendekoak eta entziklopedian ez datozenak: Guillaume de Pierre Godin (1260-1336), Clement d'Ascain (Jean Duhalde, 1693-1781), Jean Daguerre (1701-1785), Dominique Elicagaray (1758-1822), Père de Ravignan (Gustave-Xavier Lacroix-Ravignan, 1795-1858), Arnaud Hiriboure (1805-1859), Louis Edouard Cestac (1801-1868), Auguste Etchecopar (1830-1897), etab...

### **3. Egin ote daiteke euskal entziklopedia objektibo eta irekirik?**

Ohar hauetatik ondorio serioak atera daitezke... hemen antzematen direnak ez dira huts soilak, honelako lanetan berezkoak direnak, barru-barruko zerbait baizik. Eta une honetan ez naiz entziklopedia honetaz bakarrik ari; euskal historiografiaz orohar eta belaunaldi berriek jasotzen duten kultura zientifikoz ere ari naiz.

Zer dago barru-barruan? Konplexuak? Ezjakintasuna, ala go-goan hartu ere ez egiteko nahia? Iraganeko mendeku ideologiakoak? Gorrotoak eta gutxiespenak?

Egin ote daiteke gaur egun entziklopedia edo historia orokor irekia eta objektiboa euskal munduaren kulturaren eta heziketa zientifikoan? Egia esan, zalantzan jartzen dut, eta ezetzean nago, kontrakoa erakusten duten produktuak ikusi arte... Eta honela hitz egitean, ongi dakit zer esaten dudana: azken hamar urteotan milaka liburu eta artikulu izan ditut esku artean, eta ongi ezagutzen dut gaia...

Etorkizunean zorrozki kritikatuko da oraingo historiografia (horren dibulgaziozko fruitua, hein batez behintzat, entziklopedia hau delarik), azken hamarkada hauetan historiografiak aurrerakada handi samarra egin baitu, metodoak eta teknikak hobekien dira, jakintza zabalduz doa, geroago eta hobeki ezagutzen dira artxibo-funtsak, aurreko garaietan baino hobea da hezkuntza zientifiko-historikoa... Beraz, horien guztien ondorioa historia orokor objektiboagoak eta irekiagoak egitea izan behar luke... Eta hain zuzen ere horrexen falta da nik nabari dudana... Zergatik? Isilean uzten direlako, ezkutatu egiten direlako hainbat gauza eta alderdi bateranzko joeraren puntu ezkorrak nabari direlako... Hemen (erlijioaren aurkako) birus antzeko bat dagoela dirudi, pipiak bezala lan baliotsuak barrutik jaten dituena, eta birus honek jandakoa edo galdutakoa, hain zuzen ere, lehengo eta oraingo errealitatea da, eta birus hori desegin eta lehenengo testua edo lehengo eta oraingo errealitatea berrezarri arte, itxuraz onak diren euskal historiografiako emaitzak gaisorik egongo dira.

Dena dela, pozik erabiltzen dudana eta oso erabilgarria den Hiztegi Entziklopedikoaren egileei zorionak emanaz bukatzen ditut ohar xume hauek.

Baina aurrerantzean, entziklopedia bat horixe, benetako entziklopedia izango bada, ezinbestekoa da oraingo aurreritirik gabe iraganera irekitzea; erlijiotasunari begira orokorki eta Euskal erlijiotasunari begira bereziki, irekitasun handiagoa eta ezagupen hobea izatea.

*Julen Urkiza*